



# ZESATEZUE?

## **Egitasmoaren helburuak honako hauek dira:**

- Gazteek egunerokoan euskara erabiltzea eta sare sozialak euskaraz kontsumitzea eta sortzea.
- Sare sozialetan jarrera egokiak izatea eta hauen erabilera egokia egitea.
- Gazteen arteko harremanak erraztea eta herri eta eskualde ezberdinetako gazteek elkar ezagutzea.

## **Urtxintxaren proposamena:**

Urtxintxatik bideo lehiaketa bat proposatzen da. Lehiaketa honen bidez gazteek beren bideoak grabatu eta editatu beharko dituzte ondoren Urtxintxatik sortutako plataformara igo eta sare sozialetan konpartitzeko. Plataforma horretara igotako bideo guztien artean bi sari mota banatuko dira: epai mahaiarena eta Youtuben bozkatutakoenak. Sari hauen helburua, gazteak motibatzeaz gain, sare sozialetan bideo hauek konpartitu eta mugitzea da.

Hona hemen bideoak grabatu eta editatzeko aholku batzuk:

- Bideoa grabatzen hasi baino lehen Story Telling bat irudikatu: Zein irudi edo plano aterako dituzuen eta bakoitzaren ideia nagusiak idatzi.
- Bideoaren gidoia idatzi, pertsona bakoitzak esango dituen esaldiak banatu.
- Falta diren baliabideak lortu edo sortu.
- Soinu/zarata gutxi dagoen tokietan grabatu.
- Atzealde neutroa duen antzeztokia aukeratu.

Talde bakoitzak erabakiko du nolako bideoa aurkeztuko duen. Laguntza bezala, Quik GoPro aplikazioa gomendatzen dugu (mugikorretik grabatu eta editatzeko aukera ematen du). Bideoak eta argazkiak bideo batean nahasteko aukera ematen du aplikazioak.

Bideoan musika jarritz gero, kontuan izan sare sozial batzuek ez dutela egile-eskubiderik gabeko abestiak jartzen uzten. Quik GoPro aplikazioak dituen abestiak egile eskubideak dituzte eta doakoak dira.